

***Compliance* programak: enpresak ardura penaletik salbuesten dituen antolaketa eta kudeaketa modelu bat**

Donostia - 2016ko Irailak 30a

Gipuzkoako Bazkondeak “ETEak: compliance eta ardura penalak” jardunaldia egin du gaur, *compliance* edo konplimendu modeluak enpresetan ezartzeak ematen dituen onurak ezagutu arazteko.

Jardunaldian Rafael Uncetak, Gipuzkoako Fiskaltza Probintzialeko fiskal atxikituak eta Aitor Fernándezek, Gipuzkoako Bazkondeko Tax&Legal Departamentuko Zuzendariak parte hartu dute, Urko Bidegainekin, Gipuzkoako Bazkondeko Alboko Idazkari Nagusiarekin batera.

Jardunaldia konplimendu modelua edo *compliance*-a enpresan ezartzeko eta kudeatzeko garrantzian oinarritu da, enpresa horrela ardura penalez salbuesteko. Kontutan izan behar da Kode Penalaren etengabeko aldaketek enpresak ardura penalen arduradun bihurtu dituela honek guztiak enpresaren ondareentzat arrisku berriak ekartzen dituelarik.

Rafael Uncetak, Gipuzkoako Fiskaltza Probintzialeko fiskal atxikituak enpresek egin ditzaketen delituak azaldu ditu, enpresek egunerokoan egiten dituzten delituak azpimarratuz: langileen segurtasuna eta iruzur egitearena izan dira atentzio berezia jaso dutenak. Egoera honi aurre egiteko Rafael Uncetak enpresak ardura penalez libratzeko egin beharrekoak azaldu ditu, horretarako egokiena delituak saihesteko kontrol eta zaintza neurri egokiak izango dituzten antolaketa eta kudeaketa modeluak ezartzea dela adieraziz, hau da, *compliance* programak ezarriz.

Aitor Fernándezek, bestalde, *compliance* programa baten ezinbesteko elementuak aurkeztu ditu eta hau ETE batean nola ezarri behar den azaldu du. *Compliance Officer* pertsonaren garrantzia nabarmendu du eta baita konplimendu programa enpresa bakoitzeren arriskueta egokitu behar izatea azpimarratu du ere. Amaitzeko, ardura penalen ondoriak ekiditeko helburuarekin antolaketa eta kudeaketa programa hauek izatearen garrantziaz kontzientziatu nahi izan ditu Gipuzkoako enpresak.

Informazio gehiago:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347